



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

Bizkaiko, Nafarroako eta Xilaba txapelketak, **udazkenean**

Saso berean egiteko eta zaleei haien jarraipena errazteko, saioak uztargarri egiten dituen egutegia osatu da.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa eta Xilaba amaitu gabe utzi ziren iaz; eta urte honen hasieran behar zuten Nafarroakoak. COVID-19ak eragindako zailtasunak tarteko, ordea, data zehaztu gabe atzeratu ziren. Egoeraren bilakaera ikusita, Bizkaiko, Nafarroako zein Bertsularien Lagunak elkarteek txapelketa hauek 2021eko udazkenean egitea erabaki dute. Pandemiaren eboluzioaren arabera, irailean, egoeraren irakurketa berria egin eta beharrezko neurriak hartuko dira.

Zortzina saio izango dituzte Xilabak eta Nafarroako Txapelketak, eta hamar Bizkaikoak. Kasu bakan batzuetan, egun berean izango dira zenbait saio, baina zaleei haien jarraipena errazteko, txapelketak elkarren artean ahalik eta modu onenean uztartzeko egutegia osatu da.

Final laurdenetan eten zen Xilaba iaz. Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan pandemiaren aurka egiteko neurriak gogortu ziren urrian, eta kultur emanaldiak bertan behera geratu ziren. Irailaren 18an hasiko da berriro ere txapelketa, eta azaroaren 13an izango da finala.

Udabarria Bertsotan sailkapen saioak irailean eginda, Bizkaiko Txapelketa ez hastea erabaki zen, aurreikusten

ziren eragozpenak tarteko. Urriaren 3an hasiko da eta abenduaren 18an ezagutuko dugu txapelketa.

Nafarroako aurrekanporaketak

Urtearen hasieran ziren egitekoak Arabako eta Nafarroako bertsolari txapelketak. Araban, ohiko txapelketa egin beharrean, maiatzean bukatu berri den binakakoa gauzatu zen.

Nafarroan, aldiz, atzeratu eta urriaren 2an ekingo zaio Nafarroako Bertsolari Txapelketari; azaroaren 27an izango da finala.

Aurretik, ordea, sailkapenerako saioak jokatu dira ekainaren 18an, 19an eta 20an. 18 bertsolarik hartuko dute parte lgantzin, Garesen eta Iruritan egingo diren hiru saioetan. Horietatik, hamabik lortuko dute udazkeneko txapelketan parte hartzea.

Azken ekitaldian -2019koan- parte hartu zuten bertsolariek dute bermatuta txapelketarako txartela. Sekula parte hartu ez dutenek edota 2019koa baino lehenagoko edizioen batean parte hartutakoek aurrekanporaketa fasea jokatu beharko dute sailkatzeko. Aurrekanporaketak osatzeko, pasa den txapelketako azken lau sailkatuak

ere batu zaizkie; horrela, 12 bertsolari dira urrian hasiko den txapelketarako sailkatuta daudenak, eta 18 aurrekanporaketak jokatu dituztenak. Hamabik lortuko dute sailkapen txartela eta, beraz, 24 bertsolarirekin abiatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa urrian.

Aurrekanporaketetako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskuratu daitezke eta saioei buruzko informazioa www.bertsozale.eus atarian topatuko duzue.



ASIER GALARZA GARAI

Muxika - 2021-VI-06

Jon Lopategiren omenezko I. Argi Baltza Sariketa

Doinua: Udaletxean badut

Jonen herrikide naiz
baina ez moldeko
ez bere ahots tinbre
kantu dotoreko
ez bere mezu zuzen
edo umoreko
pisu bat badudala
ez dizuet gordeko
batzutan sentitzen naiz
bere oinordeko (bis)
argi egiten duen
baltzan koloreko.



Pandemiaren eboluzioaren arabera beharrezko neurriak hartuko dira txapelketetan. / XDZ

Bertso plaza mugitzen hasi da

COVID-19ak eragin izugarria izan du bertsoalaritzan, eta horregatik, bertso-eskoletako eta plazetako dinamika berreskuratzen jarri du begia bertsoalaritzaren mugimenduak.

Ez da urte hasiera ona izan bertso plazarentzat. Pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, 2019an egin ziren bertso saioak baino %60 gutxiago egin dira aurtengo lehen hilabeteetan, eta 2020an baino %25 gutxiago; kontutan hartu behar da iazko urtearen hasiera bera ere pandemiarik gabekoa izan zela.

Duela bi urte 366 saio antolatu baziren, aurtun 144 saio besterik ez dira antolatu. Edonola ere, martxotik aurrera bertso plazen kopuruak goranzko bidea hartu du, eta hala jarraitzen du egun ere: apirilean 29 saio egin baziren, 47 izan dira maiatzean.

Saio motari dagokionez, azken hilabeteotako joerari eusten zaio: jaialdiek eta bat-bateko bereziek betetzen dute agenda batez ere, bertso hitzorduen %91,5, zehazki. Lagunarteko eta plaza libreko saio gutxi antolatu dira, aldiz; otorduetan edo mahai-inguruan egiten direnak eta gai-jartzailerik gabe bertsoari ikus-entzuleengandik hurbil kalean egiten dituztenak, alegia.


Lankuren aldeko apustua

Tokian tokiko antolatzaileei bertso saioak antolatzeko zerbitzua eskaintzen die Lankuk. Urtez urte gora egin du haren

bitartez gauzatzen diren saioen kopuruak. Nabarmentzekoa da, urtarriletik maiatzera bitarteko epea aintzat hartuz gero, 2021ean saioen %45 bideratu dela kultur enpresatik, eta 2019an, %30 izan zela.

Bertso plaza mugitzen hasi da.

Plazako bertso-saioak 2019-2020-2021



Martxotik aurrera bertso plazen kopuruak goranzko bidea hartu du. / XDZ

Zapla gazteen zirkuitua abiatu da Gipuzkoan

Maiatzaren 29an hasi zen, eta uztailaren 2ra arte sei saio antolatu ditugu; gazteen plazaratzean bultzada ematea da asmoa.

Gipuzkoako Bertsozale Elkartetik tokian tokiko bertso-eskola eta bertsolari gazteekin elkarlanean ekimen berria jarri dugu martxan: Zapla bertsolari gazteen zirkuitua. Maiatzaren 29an hasi eta uztailaren 2ra arte asteburuko saio bana izango da, eta saio bakoitzean hiru bertsolari gazte eta plazaz plaza dabilen beste batek hartuko dute parte. Formatu desberdinetako saioak izango dira tartean.

Bederatzi gazte hainbat bertsolariarekin trukaturako esperientzietatik sortu da egitasmoa, eta gazteek plazan dabiltzan bertsolariarekin kantatu eta euren gogoetak plazaratzeko aukera izatea da asmoa.

Izan ere, plazaratze prozesuan dauden bertsolari gazteek sarri euren bertso-eskolek antolatutako saioetan kantatzeko aukera izaten dute, baina hortik kanpoko zirkuituan sartzea kosta egiten da. Horri erantzunez jaio da Zapla.

Eskoriatzan izan zen lehen saioa maiatzaren 29an, eta ekainaren 6an, bigarrena, Azkoitia. Lehenengoan, Maddi Aiestaran, Julene Iturbe, Asier Ibarburen eta Onintza Enbeita aritu ziren kantuan, Olatz Zuazubiskarren gidaritzapean; bigarrenan, Iker Ormazabal, Oihana Arana, Aner Euzkitze

eta Miren Amuriza bertsolariarekin kantatu zuten, eta Jeni Galdos aritu zen gai-jartzaile lanetan.

Gonbidapenak, eskuragarri

Oraindik beste lau saio geratzen dira Zapla zirkuituan. Ekainaren 12an Hernanin izango da saioa, eta Haizea Aranak, Ane Belokik, Aner Euzkitzek eta Sustrai Colinak kantatuko dute. Ekainaren 18an, Zarautzen, saio musikatua eskainiko dute Asier Ibarburen, Ane Belokik, Oihana Aranak eta Beñat Gaztelumendik. Legazpin izango da hurrengo geldialdia ekainaren 25ean, musikatua hau ere, eta Uxue Alkorta, Maddi Aiestaran, Julene Iturbe eta Ane Labaka ariko dira kantuan.

Azkenengo saioa Beasainen izango da uztailaren 2an, eta, bertsoan, Uxue Alkorta, Haizea Arana Iker Ormazabal eta Nerea Elustondo ibiliko dira. Gai-jartzaileak, saioz saio eta hurrenez hurren, Irati Sanchez de Arevalo, Maite Aizpurua, Aizpea Garmendia eta Maria Osés izango dira.

Saioetako sarrerak doakoak dira, baina izena eman behar da aurretiaz. Gonbidapenak eskuragarri daude www.bertsozale.eus atarian.

Bapatean 2020 bertso bilduma bertsozaleen eskura jarriko dugu ekainean

598 bertso jarri ditugu bilduman irakurri zein entzuteko moduan; COVID-19ak plazan izan duen eragina ere nabaria da edizio honetan.

Hutsik egin gabe dator aurtengoan ere bertso-urtearen errepasoa egiten digun bilduma: *Bapatean 2020*. Argitalpen honetan, 54 bertso saiostatik hartuta, 84 bertsoalditako 598 bertso datoz transkribaturik, gai, doinu, izen eta ohiko informazio guztiarekin.

Joskurak bistan izenburuarekin dator Julio Soto Ezkurdiak idatzi duen hitzaurrea, eta pandemia du aipagai, horrela dio: "Bertso plaza. Zer hintzenan eta non hago! Ongi bistan gelditu zaizkin joskurak".

Hitzaurrean bakarrik ez, bildumari begiratu bat bota besterik ez dago zein urtetakoa den jakiteko; izan ere, bertsoaldietako batzuk iazko itxialdiko online saioak dira.

Liburua osatzeko, Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotako informazioa, grabazioak eta horien fitxak baliatu dira. Gainera, jende askoren lanaren emaitza da liburu hau. Borondatezko grabatzaileen zerrenda luzea dela azpimarratu nahi dugu, eta, beraz, guztioi eskerrak eman, zuei esker sortzen baitira bertsoaritzak dokumentatuta geratzeko bildumak.

Bertsozalearentzako gozagarri izatez gainera, ikertzaileentzako ere bada baliagarria Bertsozale Elkartean Mintzola Ahozko Lantegiaren bidez gauzatutako ekoizpen hau, hainbat datutatik abiatuta, behaketarako eta ikerketarako aukerak ematen baititu.

Argitalpena online jarriko dugu deskargatzeko moduan, eta audioak ere entzungai izango dituzue egun gutxi barru. Gozatzeko moduko altxorrak.



Bapatean 2020 bildumaren azala. / XDZ

"GURE ALDETARA. Nafarroako emakume bertsolariak" diskoa kalean da

Ekainaren 11n egingo da aurkezpen ekitaldia Barañainen; diskoa argitaratzeaz gain, hainbat saio ere eskainiko dira egitasmoa aurkeztu eta emakume bertsolarien sarea sendotzeko asmoz.

Nafarroako emakume bertsolarien bertsoak eta ahotsak biltzen dituen diskoa da *GURE ALDETARA. Nafarroako emakume bertsolariak* izenekoa. Bi helburu nagusi ditu Nafarroako Bertsozale Elkartean bultzatutako egitasmoak: alde batetik, Nafarroako kulturaren ondare diren bertso sorta idatziei bultzada ematea, jaso eta ikusgarri egitea, eta tradizionalki landutako bertsoen aldaera horrek gaur egun ere lekua baduela ikusaraztea. Beste alde batetik, Nafarroako emakume bertsolarietako ahotsa ematea, proiektu honen bidez elkarren arteko sarea sendotzea, eta emakumeek bertsoaritzan esateko dutenari bozgorailu bat eskaintzea.

Diskoak euskarazko 14 kantu ditu, eta guztiek dute bertsoa oinarrian. Plazan era profesionalean, aldizkako parte-hartzean zein bertso-eskoletan jarduten diren emakumeen ahotsak entzun ditzakegu bertan, belaualdi, eskualde eta askotariko ibilbidetakoak. Bertso sorten edukiari dagokionez, gai librekoak dira, baina genero perspektibatik eta feminismitatik idatzitakoak.

Halaber, bertsoaritzaren historiaren berreskurapenari keinu egin eta emakumeek izandako parte-hartzeari eskertza eginen zaio lan honen bidez. Horren adibide da diskoko azken kantua: 2020an hil zen Luzia Goñi bertsolariak idatzia da, Estitxu Arozenak ahotsa jarrita.

Diskoa Nafarroako emakume bertsolarien sorkuntza ikusarazteko eta sarea sendotzeko tresna gisa baliatu nahi da, baina, horrez gain, hezkuntza arautuko bertsoaritzaren programan eta bertso-eskoletan lantzeko material pedagogikoko gisara zabaltzea ere bada asmoa.

Aurkezpen ekitaldia, aste honetan

Egitasmoaren aurkezpen publikoa ekainaren 11n egingo da Barañaingo Kultur Plazan, 19:00etan. Hortik aurrera, hainbat bertso saio eskainiko dira Nafarroako hainbat herritan, egitasmoa aurkeztu eta Nafarroako emakume bertsolarietako elkarrekin kantatzeko aukera emateko helburuz.



Puntua jarrita

ORTZI MURUA BERRA

Bertsolaria zailtzeko bidean, libreko saioa lagun

Agur bat Maddi Paris aldetik. Hemengo bizipenek bertsoarekiko ikuspegia nola aldatu didaten? Emaztea musulmana eta senarra judua diren etxe batean izan naiz berriki, Israel eta Hamas erasoan ari zirela. Egoeraz bereziki hunkitua zen familia, eta nekatua. Bizipena. Nola iritsi bertsotan, bi aldeetako biktima langileak direla eta aterabidea, bi estatuetan baino, estaturik ez izatean datzala erratera? Nola erran hori, nazio izan nahi eta ezinaren sentiberatasunak harturik, Palestinarekiko elkartasunean kokatzen den entzule euskaldunari? Ikuspegia. Zer adierazi argitzen ari naiz, baina nola adierazi? Aldaketa.

Xalbadorrek zioen ez ziotela buruan ibili ez zuen gairik eman behin ere. Bertsolari gehiago da gaur, norbere ñabardurekin. Ez dira denak Lujanbioren zorrotzasunaz ariko, edo Xalbadorren zuhurtziaz. Baina jendaurrean biluzi gelditzeko beldurrez, ez ote da teknikan gotortzen bat baino gehiago? Edo mikroitik urruntzen?

Artzainaren aipuak ematen du zer pentsatua: «Buruan ibili». Bere zenbat bertso Odolaren Mintzoan? Bertso idatzien onuraz hitz egin da sarri. Baina zenbat bertso Mattinekin irriz herri, librean? Lehen itxialdian, Xerminekin pasa genituen ordu batzuek, bideodei bidez, doinu batetik bestera, hitzaspertuan. Gai bat jorrazteko, gaizki ulertuak argitzeko eta airean utzi hariei tiratzeko bidea ikusten diot libreko saioari, bertsolaria zeresanean zailtzeko. Zer erranik ez bertso afarian, entzulea afal-aitzineko eta afal-ondoko solaskidea denean.

Bertsolari anitzen artean, izanen dira lanketa urrunago eramango dutenak, zer esan eta nola esan uztartzuz, arte egin arte. Badugu horien beharra. Europak, «azalez eta hitzez» zuria denak, mediterraneoan hondoratu den enegarren patera Libiaren ardurapekoa dela edo Marokok hobe duela etorkinak atxiki eta zintzo ibili entzutean, Arzallusen ahots sakona hasten zait buruan kantuan: «Etxean ginen bost anai». Edukia eta forma uztartzeko bidean, norantz zoaz orain Amets?

Koplak

Udan egingo diren ikastaroetako matrikulazio epea, zabalik

Ekainaren 21ean eta 22an izango da Mintzolak antolatutako UPV/EHUko Uda Ikastaroa Donostian, UPV/EHUren Gipuzkoako campusean. Gaurkotasunez betetako gaiari helduko diogu: *Pandemia garaiko kultur gintza: egoera eta erronkak*. Horrez gain, ekainaren 29an eta 30ean Iruñeko Katakrahen Udako Bertso Eskola antolatu dugu, Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroen barruan. Ikastaro bietako matrikulazio epea zabalik dago. Informazioa www.mintzola.eus eta www.bertsozale.eus atarietan aurkituko duzue.

Poto-Finixa



Udalekuetako begiraleak, zuen zain!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Ikerketa proposamenak, ekainaren 30era arte

Goierriko ahozko ondarearen bilketa eta hari buruzko ikerketa bultzatzeko xedea du Kilometroak Kultur Elkarteak eta Mintzola Ahozko Lantegiak deitutako ikerketa bekak. Goierri eskualdeko ahozko ondarearen bilketa, ikerketa eta haren dibulgazioa egitea da deialdiaren xedea. Hautatutako proiektua gauzatzeko urtebeteko epea edukiko du proiektuaren egileak edo egileek. Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaituko da. Informazioa eta oinarriak www.mintzola.eus atarian topatu ditzakezue.



Eskuragarri www.lanku.eus atarian